

Batean kale, bestean bale

Ondarea ezagutaraztea eta babestea da gure asmo nagusia eta epaile lana inon gustukoa ez den arren, busti egin behar gara gai honetan. Gauzak ondo egiten direnean txalotu eta txarto egiten direnean gaitzetsi. Egiten ez direnean beste kontu bat da.

Nondik hasiko gara? Hutsekin ala asmatzeekin? Hobe izango da hutsekin hastea amaiera, itxaronpentsua izan dadin.

1 Infernua (hutsak) Ondarzabal

Erazzena udal honi errua botatzea izango litzateke, baina asuntu honetan bekatari asko daude. Ondare taldean ibili garenok ez gara gauza izan –batzarrak joan, batzarrak etorri- konponbide bat aurkitzeko. Hurbildu diren herritarrek ere ezin izan dute edo ez dute jakin proiektua aurrera ateratzen. Azken finean, herriak berak jo eta paso egin du. Aldundia eta Euskal Gobernuak beste onda batetan dabilta: itsas ondarea azken tximua da (el último mono).

Urte batzuk barru, miloi dezente balioko duen erreplika bat egingo da, eta denok pozik!

Gure auzokoez be badute bekatu galanta. Boga Boga itsasontzia ekarri txikituta amaitzeko!



2 Purgatorioa (hutsak baina ez) Kanoia

Kasu honetan lekeitiarrok originalak izan nahi genuen eta edozein herrik kanoiren bat duela-eta –zein herri ete dago kanoirik bakua-, nahiago izan genuen tximinia bat erreskatatzea. Beti ezin da aurkitu lumera tinarik, paleolitoko pinturarik... Goethen hitzak erabiliko ditugu: “Inoiz ezer egiten ez duena da erratzen ez den bakarra” (itzulpen librean).

Lekeition aurkitutako kanoia aztertzen hasi dira arkeologoak

Indusketa lasak hasi dituzte udalarek ondare lantaldeko boluntariak, foru aldundiko Jose Manuel Mates arkeologoaren zuzendaritzapean.

XVIII mendeko kanoia ingelesa izan daitekeela uste dute arkeologoak, eta Lekeition dauden beste kanoiekin alderatuta desberdina dela diote.



Udala, kanoia aztertzen, Fornder zasuaren babestua dute; indusketa lasak hasi arte heldu ez direla, izan dira. (10/11/2014)

Identifikatu gabeko altxorra

Uztailaren lea ihalaren ibidean agertu zen objektua ustez ez dela kanoia esan dute arkeologoak; dena dela, azterlan arkeologiko bat bezala tratatuko dutela esan du Lekeitionko Udalak.

Azpe Albarria LEKAITO

Arkeologoak, Lekeition ibiaren ertzean aurkitutako objektu baten identifikazioa egiten ari dira. Objektua ustez ez dela kanoia esan dute arkeologoak, dena dela, azterlan arkeologiko bat bezala tratatuko dutela esan du Lekeitionko Udalak.



Indusketa lasak hasi dituzte udalarek ondare lantaldeko boluntariak, foru aldundiko Jose Manuel Mates arkeologoaren zuzendaritzapean.

3 Bide gurutzean (Asmatzeko bidean, espero)

Abaroa jauregia

Udal honen apustua. Ojala ondo amaituko baleu! Beste era batera esanda, ea amaitzen ez den, seinale horretara herriak ondasun hori aprobetxatzen jarraituko duen!

Mendietaneko astilerua

Ezin dugu, inondik inora, ontziola hau galdu. Nahiko itsas ondare galdu dugu Ondarzabal txikituta.

Hainbat proiektu: Lekeitioko Elizako “papeles varios”-en antolatzea, eraikinen katalogazioa, irlaren eta Lazunarriren ikerketa...

4 Zerua (Asmatzeak)

Kurik


Konpañia eta parte gara, baina Athletic-ek 1984an Liga eta Kopa irabazi zuenetik ez da ezagutu honakorik Euskal Herrian!

Lumentxako kobazuloa. Paleolitoko margolanak

Lumentxako kobazuloan (*Garratzako koba*) bi bisonte eta zaldi buru bat irudikatzen dituzten margo gorrixkak aurkitu zituzten 2012an. K.a.-ko 14.500 eta 11.500 urteen artean egindako margoak dira eta tamaina handikoak gainera. Bizkaian dagoen bigarren kobazulorik garrantzitsuen bilakatzen da Lumentxakoa, Santi Mamiñeren ondoren. Gizateriaren Ondare izendatuko da.

Zerutik jausitakoak

Noizean behin, ehun urtetik behin, nahi barik, balioa duen zeozer agertzen da. Itsasoak opari bat egin nahi izan digu, ziurrenik kanoia bilatu agertu genuen afana edo ilusioa ikusita. Oparia arrankila litikoa (harrizkoa) deitzen da. Arkeologia Museora joan beharko da.



“De aetatibus mundi imagines”
Francisco de Holanda, 1545. B.D.H